



RYAD KRAMDI | AFP

IKUSMIRA

BELDURRA GALDU DUEN ALJERIA ETA BELDUR DEN BOTEREA

Buruko zapiak eta aurpegia ezkututzen dion Aljeriako ikur-
rinak ez dute emakumearen begirada estaltzea lortzen.
Begirada zorrotza, aurrean duen poliziaren begiradak kikil-
tzen ez duena. Aljer hiriburuak egunotan utzi digun irudia
Aljeriak bizi duen krisiaren metafora aparta da. Aurki hila-
bete bat beteko duen altxamenduak ezustean harrapatu

du boterea eta honek hauteskundeak deitu eta Abdelaziz Bouteflika presidentea bosgarren al-
diz aurkezteari uko egin behar izan dio. Askoren haserreak, berriz, bertan dirau eta erregimen-
aren keinuak beranduegi iritsi direla ematen du. Gaitzak jota hilzorian den Bouteflika aitzakia zen
erregimenarentzat boterean jarraitu ahal izateko eta orain aitzakia dute kalera atera diren milaka
eta milaka matxinoek, sistema errotik aldatzea exijitzen baitute. Emakumeak begirada eusten
dio poliziarri, jada beldurrik ez duela adierazi nahi balio bezala. Boterea beldur da orain. Ez dezala,
arren, beldurra bortizkeriarekin ezkutatu. Dabid Lazkanoiturburu